

**BIDE PUBLIKOEN
GARBKETARI BURUZKO
UDAL ORDENANTZA**

AURKIBIDEA

SARRERA

I. IDAZPURUA BIDE PUBLIKOEN GARBIKETA

I. ATALBURUA ARAU OROKORRAK

II. ATALBURUA GARBIKETAREN ANTOLAKETA

III. ATALBURUA DEBEKUAK

IV. ATALBURUA BETEBEHARRAK

**V. ATALBURUA HIRI-ALTZARIEN GARBIKETA ETA
KONTSERBAZIOA**

II. IDAZPURUA ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

XEDAPEN DEROGATZAILEA

AZKEN XEDAPENA

I. IDAZPURUA BIDE PUBLIKOEN GARBIKETA

I. ATALBURUA ARAU OROKORRAK

1. Atala Helburua

Batetik, herritarren erabilerari dagokionez, bide publikoen garbiketa arautzea eta, bestetik, bide publikoa zikindu ez dadin, prebentzio, zuzenketa eta/edo konponketa neurriak ezartzea ditu helburu atal honek.

2. Atala Entitate kudeatzailea

Deba Beheko Mankomunitatearen zerbitzuek bide publikoaren sare osoa garbitu eta bertatik datozen hondakinak bilduko ditu, zerbitzua behar den moduan eman dadin, egoki diren maiztasun eta ordutegiez.

3. Atala Bide publikoaren kontzeptua

1.- Hauek izango dira bide publikotzat joko direnak eta, beraz, udalak garbitu beharko dituenak: pasealekuak, etorbideak, kaleak, plazak, espaloiak, bideak, lorategiak eta berdeguneak, lur-lekuak, zubiak, oinezkoentzako tunelak eta herritarrek erabiltzeko dauden udal jabetzako gainerako ondasunak, erabilera publikoko zortasuna duten lekuak barne.

2.- Salbuetsiko dira, izaera publikorik ez dutelako, urbanizazio pribatuak, pasabideak, barne-patioak, orubeak, merkatal galeriak eta antzekoak, partikularrei dagokielarik guzti horiek garbitzea, jabetza bakarra nahiz konpartitua nahiz erregimen horizontalekoa izan. Mankomunitateak elementu horien garbiketaren kontrola egingo du. Jabetzak betebehar hori behar den moduan bete ezean, zerbitzu publikoek egingo dute garbiketa, dagokion kostua Jabetzari ordainaraziz, eta hala egokituz geroz zigorra ezarrit.

4. Atala Udalarenak ez diren zerbitzuetako elementuak garbitzea

Zerbitzu horien titular administratiboei dagokie herritarren zerbitzurako diren eta udalaren ardura ez diren bide publikoetako elementuak garbitzea, eta baita herriko espazio publikoak ere, horien titulartasuna Administrazioaren beste organo batzuei dagokienean.

II. ATALBURUA GARBIKETAREN ANTOLAKETA

5. Atala Jabari pribatuko kaleak, patioak eta elementuak

1.- Jabeen ardura izango da jabari pribatuko kale eta patioak garbitzea, gainera egunero garbitu beharko ditu jabeen pertsonalak.

2.- Inmuebleetako patio, atari eta eskailerak, zein markesina eta kristalezko estalkiak behar den maiztasunez garbitu beharko dira. Finketan bizi direnei dagokie betebeharrak hori eta, besterik ezean, finken jabeei, eta bide publikotik begibistan dauden patio, lorategi eta sarbideak garbi mantentzeaz ere arduratuko dira.

3.- Atal honetan adierazitako garbiketa-lanetatik sortzen diren hondakinak behar diren moduko poltsa edo ontzietan utziko dira, HHS-Hiri Hondakin Solidoen Bilketa-zerbitzura eramateko.

6. Atala Elur-garbiketa

Elurteetan, eraikinetan bizi direnen ardura izango da elurra garbitzea eta, besterik ezean, finka bakoitzaren jabeena, finka bakoitzak hartzen duen luze-zabaleraren arabera. Hala izan ezean, auzotarrak izango dira arduratuko direnak, eta ura ondo isurtzeko moduan eta ibilgailu eta pertsonen atzera-aurrera ez oztopatzeko moduan utzi beharko dute elurra.

7. Atala Garbiketarako lerroa

Udalaren iritziz trafikoaren intentsitateak eta kalezadaren zabalerak uzten duten kale eta lekuetan, 20tik 25 cm-rako lerro etengabe bat seinalatuko da zintarritik, ibilgailuek ezin izango dutena zapaldu, zerbitzuko langileek arrastaka eraman beharreko zabor-piloa erraz bildu ahal izan dezaten.

8. Atala Balkoi eta leihoetatik jantziak etabar astintzea

Ezin da bide publikoan jantzirik eta alfonbrarik astindu balkoi eta leihoetatik, goizeko 9etatik gaueko 10ak arte, eta behar diren neurriak hartuko dira oinezkoen kalterik ez sortzeko.

9. Atala Obra-hondakinak kentzea

Kanalizazioak edo beste lan batzuk egiteko, bide publikoan obrak egiten diharduten pertsona edo entitateek, lanak amaitu eta hurrengo 24 orduetan kendu beharko dituzte obra-hondakinak eta soberakinak.

Zeregin horiek jai-bezperan eginez gero, egun horretan bertan kenduko dira.

Gremio desberdinek erabilitako obra-hondakinaren edukiontziei aurreko paragrafoan adierazten dena aplikatuko zaie asteburuari dagokienez.

Egun horretarako betegabe egonez gero, lona batez estali beharko dira, egunero egin behar den bezala, lan-jarduna amaitu eta gero.

10. Atala Kiosko eta beste saltoki batzuen garbiketa

1.- Bide publikoetako kioskoen eta beste saltoki batzuen titular edo arduradunak, beharturik daude hartzen duten leku hori eta inguruak garbi mantentzera, jarduera burutzen duten orduetan, eta baita egoera berean uztera ere, lan-jarduna amaitu eta gero.

2.- Betebehar horixe dagokie kafetegi, taberna eta antzeko establezimenduen jabeek, batetik mahai-aulkiez hartzen den bide publikoaren azalerari buruz eta, bestetik, fatxadaren luze-zabalerari dagokion espaloari buruz.

11. Atala Inmuebleetako ageriko aldea

Finka, etxebizitza eta establezimenduen jabeak bide publikotik begibistan dauden inmuebleetako aldeak garbi mantentzera beharturik daude.

12. Atala Zamalanak

Establezimendu aurrean zamalanak egiten direneko establezimenduen titularrek, espaloiak garbitu egin beharko dituzte behar den guztietan eta, gainera, udal agintaritzako agenteek agintzen duten guztietan, bide publikoa behar bezala garbi mantentzeko.

13. Atala Lur, obra-hondakin edo ikatzen garraioa

1.- Lurrak, ikatzak, obra-hondakinak, hautsa sortzen duten materialak, kartoiak, paperak eta antzeko beste edozein material garraiatzen dituzten ibilgailuen jabe eta gidariek, material horiek isurtzean bide publikoa zikindu eta, beraz, beste batzuei kalte egin diezaieketenez, kontu handiz aztertuko dute Zirkulazio Kodearen 59. Atalean ezarritakoa, zama ez jausteko moduan egokitze eta horretarako behar diren neurriak hartzeko.

2.- Bide publikoan zama jausi edo isurtzea sortzen duten eta bide-segurtasunerako arriskuak sor ditzaketen istripu, iraulketa edo beste gorabehera batzuk gertatuz gero, ahalik eta azkarren jakinarazi beharko diote gidariek udaltzaingoari, eta horrek garbiketarako zerbitzu publikoari adieraziko dio.

14. Atala Ibilgailuen garbiketa

1.- Aurreko atalean adierazi diren lanetarako erabiltzen diren ibilgailuen gurpilak, baita hondeaketa-obretan, eraikuntzan edo antzeko beste batzuetan erabiltzen direnenak ere, garbitu egin beharko dira obretatik edo lantokitik irtetean, bide publikoan lokatzik zabaldu ez dadin.

2.- Eraikinak botatzeko obretan ere gauza bera egin beharko da; gainera, halako obretan, hautsik ez sortzeko behar diren neurriak hartu beharko dira.

15. Atala Zirkoak, antzerkiak eta ikuskizun ibiltariak

Dituzten ezaugarri bereziengatik, bide publikoa erabiltzen duten zirko, teatro ibiltari, tiobibo eta antzekoak beharturik daude fidantza bat uztera, haien jardueratik sortutako erantzukizunak bermatzeko. Udalak egin behar badu garbiketa, kostuak fidantza horrek ordainduko ditu eta eskatu den fidantza baino handiagoak badira, jardueraren titularrek ordaindu beharko dute aldearen kopurua.

III. ATALBURUA DEBEKUAK

16. Atala Hondakinak eta zaborrak

Ezin da hondakinik eta, oro har, edozein zabor-mota bota edo utzi bide publiko edo pribatuetan, haien sarbideetan, estolderi sarean eta hesidun edo hesi gabeko orube edo finketan; edukiontziak eta hartarako diren ontziak erabili beharko dira beti, horiek erabiltzeko dauden arauen arabera, hau da, HHSen Ordenantza honen II. Idazpuruko lehen Atalburuan arautzen denaren arabera.

17. Atala Paperontzien erabilera

1.- Ezin da hondakinik bota bide publikoan, hala nola, zigarrokinak, paperak, bilgarriak edo antzeko beste edozein hondakin; hartarako jarrita dauden paperontzietan utzi beharko dira.

2.- Halaber, ezin da ibilgailuetatik hondakinik bota, nahiz abian doazela nahiz geratuta daudela.

18. Atala Ibilgailuen garbiketa eta hondakinen manipulazioa

Ezin da bide publikoa zikin dezakeen ekintzarik egin eta batez ere, ezin da ibilgailurik garbitu eta konpondu eta ezta hiri-hondakin solidoak manipulatu eta aukeratu ere. Halaber, edozein garbiketa egin eta gero, ezin da ur-hustuketarik egin.

19. Atala Landareak ureztatzea

Honela ureztatu beharko dira balkoi eta terrazetan jarritako landareak: ura bide publikora ez isurtzeko moduan eta oinezkoei kalterik ez sortzeko moduan; ezin izango dira goizeko 9etatik gaueko 10ak bitartean ureztatu.

20. Atala Eskrementuak edo gorotzak

Animalien jabeek edo arduradunek, haien animalien eskrementu edo gorotzei dagokienean, animalien Edukitza eta Babesari buruz udal honek ontzat emandako Ordenantzan araututako arauak bete beharko dituzte.

IV. ATALBURUA BETEBEHARRAK

21. Atala Orubeen jabeak

1.- Bide publikoarekin mugan dauden orubeen jabeek, lerrokadura ofizialean dauden itxidura etengabeez hesitu beharko dituzte. Era berean, hondakinik gabe, higiene- eta segurtasun-neurriak hartuz eta apain zaindu beharko dituzte.

V. ATALBURUA PUBLIZITATEA

22. Atala Ekintza publikoak

1.- Ekintza publikoen antolatzaileak horien ondorioz sortzen den zizkinkeriaz arduratuko dira. Halaber, beharturik daude Udalari ekintzaren ibilbidea, ordutegia eta lekua adieraztera, eta azken horrek Deba Beheko Mankomunitateari jakinaraziko dio.

2.- Fidantza bat eskatu ahal izango die Udalak ekintza hori burutzearen ondorioz sor daitezkeen garbiketa-lanengatik.

23. Atala Publizitate-elementuak

1.- Hauek bete beharko dira publizitate-elementuak erabiltzeko baimena izateko: erabili diren bide publikoetako espazioak garbitzea eta publizitate-elementuak eta haiei dagozkien akzesorioak baimendutako epean kentzea.

2.- Ezin da publizitate-elementurik jarri herriko Katalogo Historiko Artistikoan barne hartzen diren eraikinetan.

24. Atala Kartelak, pankartak eta itsasgarriak jartzea

1.- Kartelak, pankartak eta itsasgarriak baimena duten lekuetan baino ez dira jarriko, udal agintaritzak baimendutako kasuetan izan ezik.

2.- Bide publikoan edo eraikinetan udalaren berarizko baimenaz bakarrik jarri ahal izango dira pankartak.

3.- Kartel, iragarki eta pankartak ezin dira kendu, urratu eta/edo bide publikora bota.

25. Atala Orriskak

Ezin da orriskarik eta antzeko materialik zabaldu eta bota.

26. Atala Pintadak

Bide Publikoetan ezin da pintadarik egin, egiturazko elementu, hiri-altzari, kalezada, espaloi, harresi, eta hormetan.

Salbuespenak:

A.- Jabeak baimendurik egiten diren arte-izaerako hormirudizko pintadak.

B.- Udal agintaritzak baimentzen dituenak.

VI. ATALBURUA HIRI ALTZARIEN GARBIKETA ETA KONTSERBAZIOA

27. Atala Arau orokorrak

Parke, lorategi, berdegune eta bide publikoetan dauden hiri-altzariak, hala nola, jarlekuak, haurrentzako jolaslekuak, paperontziak, HHSetarako edukiontziak, iturriak, seinalizazioak eta elementu apaingarriak, farolak eta estatuak adibidez, garbi eta egoera on eta txukunenean mantendu beharko dira.

28. Atala Mugak

A.- Edukiontziak: Jo HHSen Ordenantzaren I. Idazpuruaren II. Atalburuan agertzen den erabilerari buruzko arauetara.

B.- Jarlekuak: Ezin da jarlekuak behar ez bezala erabili, edo ezin da haien kontserbazioa kaltetu edo hondatzen duenik egin eta, bereziki, finko daudenak atera, lurzorura finkaturik ez daudenak bi metrotik gorako distantziara eraman, modu desordenatuan taldekatu, bertan idatzi edo pintatu.

Haurrak zaintzeaz arduratzen diren pertsonak kontu handia izango dute, hurrek jolas egiten dutenean, jarlekuetan hare, ur, lokatz zein jarlekuak zikindu edo euren erabiltzaileei kalte egin diezaiekeen beste edozein elementurik utz ez dezaten.

C.- Haurrentzako jolaslekuak: Hartarako ezartzen diren kartel adierazleetan agertzen diren adineko hurrek bakarrik erabiliko dituzte, eta ezin izango dituzte erabili helduek edo sektore edo joku bakoitzean berariz adierazten den adinean ez dauden adin txikikoek.

D.- Paperontziak: Horretarako diren paperontzietan utzi beharko dira hondakinak edo paperak.

Debekatuta dago paperontzirik manipulatzeari (mugitu, sua eman, irauli, urratu), paperontzietan izenak jartzea edo eranskinak itsastea eta haien estetika hondatu eta erabilera oztopa dezakeenik egitea.

E.- Iturriak: Debekatuta dago iturrien hoditeria eta elementuak manipulatzeari, ohizko erabilerak eskatzen duenerako ez bada.

Iturri apaingarrietan, hornitegietan, urpaldoetan eta antzeko elementuetan, ezin izango da edan, uretan sartu, jolasean jardun, ura manipulatu eta, oro har, uraz burutu daitekeen ekintzarik egin.

F.- Seinalizazioak, farolak, estatuak, elementu apaingarriak eta ikuskizunetarako behin-behineko instalazioak:

Ezin da horietara igo, horietan dinbili-danbala ibili edo horiek zikindu, kaltetu, hondatu edo horien ohizko erabilera eta funtzionamendua gutxitzen duen edozein ekintza egin.

II. IDAZPURUA ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

29. Atala Arau-haustek eta zigorrak

Arau-hauste administratibo dira, Ordenantza honetan agertzen diren arauak betetzen ez dituzten akzioak eta omisioak batetik, eta Ordenantzan arautzen den gaiari dagokionean jarritako neurri zuzentzaileak ezartzeko edo halako portaera jarraitzeko aginduei ez obeditzea bestetik.

Hala behar den kasuetan, dagozkien erantzukizun zibil eta penalen exigentziaren kalterik gabe, zigorra izango dute honen ondoren tipifikatzen diren arau-haustek; 601,01 eurotatik gorako kopurua ez denean, Alkateak ezarriko du zigorra.

Arin eta larritzat jotzen dira arau-haustek, hemen zehazten denaren arabera:

ARAU-HAUSTE ARINAK

ARAU-HAUSTEA	GUTXIEN. ZIGORRA	GEHIEN. ZIGORRA
Bide publiko edo pribatuetan, haien sarbideetan eta orubeetan hondakinak eta zaborrak bota edo uztea	6,01.-	60,10.-
Bide publikoan ibilgailuak garbitu eta manipulatzeko	6,01.-	60,10.-
Landareak ezarritako ordutegitik kanpora ureztatzea, herritarrei edo bide publikoan kalterik sortuz gero.	6,01.-	60,10.-
Jantziak eta alfonbrak astintzea, kalterik sor dezakeenean	6,01.-	60,10.-
Garbiketetatik datozen urak hustutzea	6,01.-	60,10.-
Kartel, iragarki edo pankartak kendu, urratu edo botatzea	6,01.-	60,10.-
Kartelak, pankartak eta itsasgarriak, baimenik ez duten lekuetan jartzea. Iragarlea izango da arduraduna	6,01.-	60,10.-
Baimendutako edozein jarduera burutzeko hartu den bide publikoaren espazioa garbi ez mantentzea	6,01.-	60,10.-
Zamalanak izan eta gero, ez garbitzea	6,01.-	60,10.-
Bide publikoari eragiten dioten obren arduradunentzat 9. atalean aipatzen diren betebeharrak ez betetzea	6,01.-	60,10.-
Orriskak zabaltzea	6,01.-	60,10.-

ARAU-HAUSTE LARRIAK

ARAU-HAUSTEA	GUTXIEN. ZIGORRA	GEHIEN. ZIGORRA
Baimenik gabeko pintadak egitea	60,10.-	601,01.-
Hiri-altzarien funtzio edo estetika hondatzen dituzten jarduerak	60,10.-	601,01.-
Bide-garbiketako lanak egiten oztopatzea	60,10.-	601,01.-
Ibilgailuen jabe eta gidarientzat 13. eta 14. Ataletan ezarritako betebeharrak ez betetzea	60,10.-	601,01.-
Arau-hauste arinak berriro egitea		601,01.-

30. Atala

Horri buruz indarrean dagoen araudira egokituko da Prozedura Zigortzailea.

Zigorren graduaziorako, gorabehera hauek baloratuko dira batera:

- Arau-haustearen izaera.
- Ondasun edo pertsonarentzako arrisku-gradua.
- Asmoaren gradua.
- Berriro egin izana.
- Sortutako kaltearen larritasuna.
- Kontuan hartzea komenigarri iritzitako beste gorabehera batzuk.

Berrerorletzat joko da, aurreko urte batean arrazoi beragatik behin edo behin baino gehiagotan zigortu izan den partikularra.

Edozein modutan ere, berdin diolarik zein zigor jar daitekeen, ordaintzapen egokia izan beharko dute ondasun publikoei eragindako kalteek; dagozkien udal zerbitzuei egokituko zaie ebaluazio hori egitea.

31. Atala

Udaltzaingoa izango da Ordenantza honen funtzionamendu zuzenaz arduratuko dena.

Ofizioz edo alde batek eskaturik emango zaio hasiera prozedura zigortzaileari, dagokion salaketaren bidez.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen den momentutik, indargabetu egingo dira ezarrita egon eta Ordenantza honen aurka doazen lerrun bereko edo txikiagoko xedapen, araudi eta ordenantzak, baliorik eta ondoriorik gabe utziz.

AZKEN XEDAPENA

Behin-betiko ontzat eman ondoren eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzen den egunetik hamabost egun igarotakoan sartuko da indarrean Ordenantza hau.